

Milovan Djilas

Gaurko gure mundu onetan Komunismoa biur-tu yaku bildurgarririk eta zigorrik andiena. Orre-tan eztago dudarik. Bai Europa eta bai Asian lurralde zabalak eta naziño osoak menperatu izan ditu. Eta beren atzaparretan jausi eztireanak be, ikaraz dabizela ezin ukatu. Errusiaren erpear-i iges egitearren, Europa ta Ameriketako errialdeak alegiñak egiten dabiz. Alkarren indarrak batuten, norberaren defensarako kontuak ataraten, eta abar.

Konturatu dira, nunbait, danon indarrak al-kar arturik, obeto gordeko direala. Eta guzti ori bearrekoa zala bistan da. Baiña ausaz ezta nai-koa, Komunismoa idea bat da, eta idea bat ezin lei garaitu armakin bakarrik. Balmes-ek diñoanez, ideak errez pasatuten dira bayonetakin eginda ko ormetatik zear. Beste norbaitek be oraintsu esan dau—eta egoki esanda dago—, Okzidenteko erriak ba-dakitela zer eztaben gura —Komunismoa—, baiña zer gura daben ezta kitela, eta ortixik dato-rrrela iñora barik ibilte ori, batasuna ezin lortu-tea, eta amaibako errietak eta arramuskadak eu-ren artean eukiñtea. Komunistak, barriz, ba-da-kite ondo zer gura daben eta nora doazen, eta euren indarrak ondo batuta daukiez.

Bien bitartean, burdiñezko estalki gogor batek galazoten deusku ikusbidea, beste aldeko naziño-etan zer jazoten dan jakiteko. Andik ona eztaoz eurak bialdu gura dabezanak izan ezik; emendik ara be eztoaz. Eta alan, barri zeatzik ezin jakin. Mundua zorigaiztoz erdibitu egin da, eta erdi bana beste erdiaren arerio egiñik bizi da.

Etorkizuna norena izango da? Ezin jakin. Bear-bada egun baltzak ikusteko gagoz. Baiña Jaun-goikoa dogu gizonen ganetik, eta ori da gure itxa-ropen bakarra.

Ganera, azken urteotan agiri dira señaile bat-zuk, Komunismoa desegiten eta beren barruko indarra galduten asi dala ueste izateko. Señaile orreik amaiaren asiara eite dira? Ezta kigu. Dana dala, gogoratu daiguzan batzuk. Lenengoa, Sta-

lin-egaz jazo dana. Stalin il zanean, beronen atze-tik etorri zireanak milla zikinkeria ta krimenik lotsagarrienak bota eutsiez an arpegira. Au ba-da zerbait, egindako erruak autortutea be iñpein, il-da dagonaren samatik dingilizka ipiñiarren. Gero, 1956-ko Zemendian mundu guztiak daki zelan Hungria-ko erria oso-osorik jagi ta altzau zan Komunismoaren uztarria bota gurarik. Jakiña, erusoak arin-arin zapaldu eben erri martiritatu ori, baiña alan be zeozer esan gura dau jazoera onek: Hungria-ko erriak Komunismoari deusgan gorrotoa ta ikusi-eziña.

Eta orain azkenik, Milovan Djilas-en libru zoli zaratatsuak urten deusku. Jaun ori betiko ko-munista izan da. Tito-ren lagun andia eta Yu-goslavia-ko Lendakari -ordea izanikoa, ganera. Baiña baita zintzoa be. Tito aspalditik ibilli da beren adiskide zaar oneri aoa itxi guraz. Baiña onek ingleseiz idatzi dau liburu bat *The New Class = Klase Barria*. Gero libru ori isilpean bialdu dau Yugoelavial-tik Norteamerikara, al-bait ariñen argitaratuteko aginduaz. Eta alan egin da. Titok kartzelan sartu dau Milovan, li-bru ori dala ta ezta. Baiña berandu. Beren adis-kidea ezin izan dau isildu arazo. Milovan-en boza lau aizetara zabalduten ari da, eta Komunismoak gaurgiño ezta u ezautu bomba kaltegarriagorik, libru auxe baiño.

Eta zer diño Milovan-ek beren libru onetan? Komunismoak frakasau egin dabela, eta ganera derrior frakasau egin bear ebala, buruaren ames bat baiño ezta. Soziedadean klase bat kendu, eta aren lekuan beste bat milla bider gorrotaga-riagoa ta ustelagoa ipiñi: auxe besterik ez ei dau egiten. Tiraniarik itzalena sartu, eta gizonari askatasun guztia kendu. Langilleen alde doala esan, baiña langilleak ez tira iñoz ugazaba zanta-rragoaren azpian egon. Auxe da, berba gitxitan, Milovan Djilas orrek diñoa. Makiña bat gizoneri begiak zabalduten dabillen librua.

L. Villasante

DAKARRETIK

Donibanetik Dakarreraino
zer itsas-bide luzea!

Harat joateko behar baitugu
bai indar eta bai bihotz.


IRATZEDER

Luzea benetan, ANAITASUNA-ren irakurleok, Euskalerritik Dakarrerainoko bidea. Emen gabiltza atunetan berrogeta bederatzi embarkaziño euskaldun. Geienak Frantzia aldekoak (32): Donibane Loitzun, Ziburu ta Sokoakoak. Beste amazapi enparaduak, Espaiña aldekoak: Ondarrabiko

ARRAIÑA

Emen atrapetan dogun atuna ez da gure itxasoetakoa lakoa. Ega luze ta ega laburraren erdikoa. Ba-dagoz aundiak eta txikiak: lau kilokoak eta berrogetamarrekoak. Aragia, zuriztea. Azala, adurtsua. Indarra, aundia.

Iru edo lau urte dira, itxaso onetan arraintzaleak atunetan asi zireala. Igaz eta igaz lenean polito atrapatu izan ei dabe arraiña. Aurten eskasago dabil, orain arte beinik bein. Iru illabete igaro dira etorri giñana, eta oraindiño ez da agiri beste urteetako arrain ugaria. Ibilli, ba-dabil emen embarkaziñoa, gora ta beera, Esteraka ta Oesteraka, Ipar latitude 15-etik 10-



Dakar. - Katedrala, Afrikako estiluan egiña

bi, Pasaiko bat, Orioko bat, Motrikoko iru, Ondarroako bost. Lekeitioko bat, Bermeoko lau. Bermeotik berrogei embarkaziño giñean etorteko; baiña gauzak ez euskuen ondo urten, eta azkenean lau bakarrik etorri gara. Zemendiaren 25-ean, Santa Katalina egun-ean, urten genduan etxetik. Goitarrak baiño illabete beranduago. Amabost egun egin genduzan bertora eltzeko. Eta emen gabiltza ordutik ona, gau ta egun, gora ta beera, atunetan, batzuetan aizeraka, beste batzuetan poparean, beti jardun gogorrean. Egia aundia diño Aita Iratzederrek bere bertsoetan: *Dakarrera etorteko, indarra ta biotza bear.*

erarte, baiña ez da agiri gauza andirik.

ARRAINTZALEAK

Dakarreko itxasoan aurten dabilzan arraintzaleak eundalarogei bat izango dira. Danak, bat edo beste izan ezik, kampak, Espaiñaikoak eta Frantziakoak. Batez-bere, Frantziako iparraldekoak: Breatañiar-ak. Bizkaia ta Gipuzkoakoak lau grupo egiten doguz alkarren artean: Frontera, Gipuzkoa, Bizkaia ta Matxitxako. Grupo baktzekoak, embarkaziño bat bagiña lez, lan egiten dogu; irababaziak be danontzako dira. Orregaitik, danok bata besteari, norberaren grupokoeri legez, lagunduten deutsa-

gu. Gauza erreza da, embarkaziño laguna non dabillen jakitea, arraiñuntzi guztiak radio emisorea ta goniometroa daroezalako. Eten barik gabiltza radioz alkarrerri berba egiten, bear dan guztirako, batzuetan arraiña non dagoan esateko; beste batzuetan norberari sobretan jakon karnada bizia lagunari emoteko, ta abar. Eskerrak laguntziño oneri, Dakarreko arraintza-leen bizibidea guztiz gogorra ta latza da-ta.

ITXASOA

Ainbeste dempora daroagu, eta oraindiño ez dogu euki eguno-bere benetakoa kalma zuririk. Beti aizea, beti olatua. Eta gabaz lotaño gagozanean, izugarrizko balantzadea. Berorik be ez dau egiten. Orainarte beintzat. Cuba ko itxasoan baiño egorantzago egon arren. Baiña ondo pentsatuta, ez da arrituteko gauzea, ze bertont be oraintxe da negua, eta urtarrilla ta zezeilla (enerua ta febrerua) urteko illerik otzenak. Ori gora beera, klima ona da: beti eguzkia, iñoiz be ez euria ta otza.


ELEIZEA

Domekatan-bere lan egin bear. Askotan jakin bere ez dogu egiten asteko ze egun dan. Emen gagozan bitartean, iru edo lau illabetean, mezarik entzun barik egon bear. Aita Iratzederrek bere bertsoetan diñoan legez:

*Hemen aphezik, mezarik gabe
baigare nahi ta ez bizi.*

Baiña, zorionez, ez da ori pasatzen embarkaziño guztietan. Gurean, Bermeoko "Nuevo Galerna"-n, fraille bi datoz, bata sazerdotea, bestea anaia laikoa. Domeka guztietan, naiz goizean lan egiten asi orduko, naiz arratsalde beranduan eguneko beatra amaituta ta gero, mezea entzuten dogu danok. Ze gauza ederra, itxaso erdian, illunabarrean, Dakarreko puntan, mezako

sakrifizioa zebratzea eta Jaungoikoaren verbea entzutea! Eta ze ona dan Eleiza Ama Santua, fraille bion personan gure artera etorri dalako, bere seme arraintzaleakaz akordaturik! Ementxe dabilta biok gugaz batera zintzo zintzo lan egiten. Frai Alberto, naiz makiñan guardia egiten, naiz gaixoal jagoten, naiz zaurituak osatuten, naiz lagu




Aita Imanol, alba ta estolaz jantzita altara ondoan egon zan

neri ulea ebagiten. Aita Imanol, karnacea emoten edo poleatik ten egiten, zein arraiñak batetik bestera igaroten. Eta gero, deskantsaldietan, danok gure fraille biokaz erlegiñoako gauzen ganean larguro verba egiten.

POZA TA NEGARRA

Gabon gabea, euskaldun untzi guztiak Dakarreko portuan batu giñean. Eta antxe, iñorabarik danok alkarren ondoan ospatu genduan Jesusen jaiotza. A izan zan alegantzia ta alaitasuna! Gero apalostean, gaberdiko mezea entzuten joan gintzazan. Dakarreko abade batek, Itxas-Apostoladuko arazoa daukonak, bein beiñeko kapilla eder bat atondu eban portuko moilla ondoan. Antxe batu giñean ainbeste euskaldun, eta meza asikeran Gabon kanta zar bat abestu genduan. Abade frantsesak emon eban mezea, eta Aita Imanol, alba ta estolaz jantzita, altara ondoan egon zan. Gero, evangelio ostean, abadeak sermoia egin ondoren, Aita Imanolek, erdi

bizkaieraz, erdi gipuzkera-laburderaz, euskerazko verba batzuk esan euskuzan. Jarraian barrero Gabon kantak. Eta dana amaituta gero, pozarren joan giñean lotara. Baiña gau atan, negarrezko zeredozer jaso zan. Urrengo egunean eta urrengoan ez zan agiri Ondarroako arraintzale gazte bat. Gabon gaberik aurrera ez eban inok ikusi. Laster zabaldu zan pekoa ito-edo egin zala. Eta izan-bere alantxe izan zan. Nonbaitean-be, Gabon gabea, ainbeste embarkaziño-artean, illupetan laban-edo egin eban, golperen bat artu, konorte barik uretara jausi, eta bertan ito. Urtebarri egunean, Dakarreko eleiza baten entzun genduan bere arimearen alde defuntuen meza bat. Gauza guztiz emozio-garria izan zan, ia eleiza guztia euskaldun arraintzalez beterik ikustea, eta Aita Imanolen euskerazko verbaldi sutua Dakarreko erbestean entzutea!



Dakar, Afrika Okzidentaleko Uri nagusia

EUSKEREAA

Jaungoikoak ez daiala gura izan! Baiña inoizko baten Euskerea galduko balitz, azken azkenengo arraintzaleen artean izango litzake seguru segurutik. Emen dana egiten dogu euskeraz. Radiotik ez da besterik entzuten: Euskaldun frantsesak onda batetik, guk bestetik. Legorrean bardin: dana euskeraz. Batzuk Bizkaieraz, beste batzuk Gipuzkeraz nai Laburderaz. Gure kostaldeko euskalki guztiak entzuten dira emen. Ori gora-beera danok alkarrereri ondo ulertzen dutsagu;

eta oraindiño obeto ulertuko geunskio, gutariko bakotzak bere euskalkia artez eta zabal pronuntziatzen jakingo baleu. Baiña ez daiala inok pentsa, gure euskerea "garbia" danik, ez. Guk ez dogu euskeraz egiten verbeta landuteko, ezpabere bear egiteko eta dirua irabazteko. Guri euskerak *biziteko valio deusku*. Orregaitik, probetxu andiagaz erabilten doguz erbesteko verba asko ta asko. Olan ez dabiltz, euskaldun arraintzaleok laster largako geunskio euskereari, guztiz "garbia" ta ederra izan arren, eta erdera erabiliko geunke, euskera garbi zaleen negar alperrak gorabeera.

DAKAR

Zenbat bidar aitatu izan dogun izen au Bermeen, bertora etorri orduko! Aundia zan gure guraria, Afrika Okzidentaleko uri aundi au ikusteko. Eta azkenean ikusi dogu. 300.000 habitante eukiko ditu. Geienak baltzak. Frantsesa da bertoko verbeta ofiziala, eta frantsesak bertoko agintariak. Zuriak bizi direan alderdia guztiz barria ta elegantea da. Baltzen artean, euneko larogetamabost mahometarrak dira. Bertan bizi da Africa Okzidentaleko artzobispo katolikoa. Katedrala Afrikako estiluan egiña da. Monjak be badagoz. Kampotarrak ia danak. Mariaren

Misiñolari Frantziskotarrak, gure artean Monja Zuriak deritxoenak, iru etxe daukez bertan. Euren artean monja euskaldun bat aurkitu neban; Gipuzkoako Arantzazun jaioa bera. Gu, arraintzaleok, portura gatozanean, gitxi joaten gara errira. Bizia guztiz karu dago, eta gainera ez dakigu frantsesa. Askotan, naiago izaten dogu embarkaziño barruan egotea. Eta an akordatzen gara gure etxeokaz, eta milla bidar esaten deusagu alkarrereri Euskalerra lakorik mundu guztian ez dagoala.

Dakar, 1958, Urtarrillak 25.

BERRIATUA

Jesukristo'ren Eriotzan

Barren barrendik dardaraz lurra,
eguzkia goiz illunpetu da.
Zeru ta lurrak dabillen guda!
au larritasun, au da bildurra!
Izarrak goian ez dabe argirik,
mendiak bean ezin geldirik,
urrundik dantzut itxas orroa.
Miñez ete da Jaun zerukoa?
Zer da, gizonak, gaur dakusguna?
Nun da maisua, nun jakituna,
nun dira zaarrak, nun liburuak?
Zer jaoten da, zer dan munduak?

Munduak negar, bere Egillea,
Bildots garbia, Erru gabea,
Aitaren Verba gizon egiña,
Aingeruen poz eta atsegiña,
Zeruko ispillu garbi garbia,
edertasunen Leniturria
zauriz, odolez, izerdiz autsez,
txistuz, arantzaz, miñez, naigabez,
lapur birekin kurtzeratua,
Bera bailitzan lapur burua...!
Negar munduak, Jauna ikustean
Untzez josita ilik kurtzean.

Negar egizu, negar, mundua,
irriz ta griñaz nasai, lokabe,
larrez, izekaz, lotsarik gabe
dabillen arte gizon gaiztua.

Illundu zaitte, egun sentiko
argitasunen eguzki brintza.
Nun dozu edango, nundik bustiko
loratxuetan goizeko intza?
Zure urrebitsen iturri biak
miñaren miñaz legortu dira;
Jesusen begi zoragarriak
ez dabe ikusten, ezin begira!

Ixildu zaitte, kantari zaren
sasilarreko txistularia,
ixilik egon, ixilik, arren,
papar gorridun txantxangorria.
Basoetako txori bizkorra,
otaxori zein urretxindorra,



ixilik egon abia ondoan,
edo negarrez kantatzekoan.

Jesus maitea, zuen Jaun ona,
—giza semeetan Bera ederrena
zeru iurretan onen onena—
da kurtze orretan ilik dagona.

Zimeldu zaitte, zelaietako
lora pitxitxi, lili bitxia,
Ez geiago izan begientzako
atsegin gozo alaigarria.
Lili polita, zimeldu zaitte,
eguzki epelik ez izan maite,
iturritxuen zumo gozok
edan bekizuz aize beroak.
Zegaitik jantzi landa munoak,
zure Jabea billoixik bada?
Il zaitte, ez bizi. Erio loak
artu dauana zeure Jauna da.

Apurtu zaitte, neure biotza,
Ez geiago izan arri gogorra,
geiago ez izan edur izotza,
izan benetan errukiorra.

Maite izaizu maite zaituna!

Nik maite zaitut, Jesus kutuna!

Euskal-arrantzaleak

Gure lankide EUSEBIO ERKIAGA-k nobela bat argitaratu dau, "ARRANEGI" deritxana. Bere erri Lekeitio-n ditu jazonak irakurgai orrek. Gure irakurleak apurtxu bat ezagutu al izan dagien eta erosten zaletu daitezcan, emen ipinten ditugu arrantzale euskaldunaren alde diñozan berba ederrok.

"Arrantzaleak, bere lanbide ta jardunean asten dan bakoitzean, beti ta beti, bere bi-ziaren guna, arrisku ta galtzoriepean ezarten dau, bildurra alde batera utzirik. Etxeko ogia, sendiaren poza, umien atsegiña, erri osoaren alaibide ta aberastasuna, orra zer dan arrantzalearen arloa; orra or, kai-erri ta portualdeetan itxaropena ta ondasuna erein ta zabalduen dakian gizasemea.

Biotz eder, gogo zintzo, barru oneko ta esku zabal, daukanean edonori emoteko gertu egon oi dan gizaki begiko, apal, gorrotorik bageko, edonoren adiskidea. Orixe dozu arrantzale euskalduna; orixe dozu egunero, arrisku bildur bage, lekurik txarrentara, osin izugarri orren atzaparretan gurtzat bere janari billa joaten dakian itsaseme jatorra!

Dirurik ezarren, jaun agertzen da arrantzalea. Aundikeri bage, gizon eta zaldun.

Biziteko lain egiten daki, ez aberastu, bearreko *urregose txarrez*.

Barruko bakearen jabe, biotz nare ta baredun, croapenez bete, egoarritsu. Daukonegaz naikoa ezaten dakiana. Eskean ibilteko gorroto dauana, bear-izan gorriaz aztamuka ibili arren sarritan.

Okituak eta ondasunez beteak ezagutzen eztaben mana, baretasun, arte ta nasaipena beragan dauan gizon apal, mazal ta gogo onekoa.

Zer esan daikee legortarrrik askok arrantzaleen ala ta kontra, uretan ordu bat edo bi egin ezkerro, legorretik iruzpalau milla urrunerantz joan ezkerro, oindiño mendiak be, begien aurrean ostendu bage izanik, burutik beatzetara dardaraka, ikaraka, laudarduan, izuturik jarten direan barritsu, minluze, prakestuak?

Isil beitez, ba, jakitun azalekoak.

Jantzi beitez euren soiñekoz, bizi beitez euren etxe zirtzilluetan, ta batez ere, bioaz itsasora, bioaz egunetan eta egunetan, uda ta negu, otz ala bero, sargori ala izotz, egunez bezela gau baltzean be.

Eta joan beitez joan, ekaitz egunetan, itsas-urak irakiten diarduen denporaletan, sartu beitez orduan intxaur-azal ortan, ta bioaz urrutira...

Orduan esango litukie, noski, lotsa aundiko berba astunak, orduan solas ta ele gurgarriak, orduantxe eskabidezko itzak, arrantzale ta itsastarrentzako gorapenak. Une artantxe litzakez mariñelentzako ele-sari bikaiñak, esanaldi aipagarri ta biribillak.

* * *

Baiña kaira arrain apurra eldu dediñeko, ikustekoa da portualdeak artzen dauan bizinaia. Alaitasun, jolasgura, barregozo, dantzadeia, orixe izaten da leen itxaropen, egoarritz ta nekez irabazitako saria.

Eztau arrantzaleak zeken-usaiñik ez zuurkeri larregirik. "Dirua —auxe da euren doktriña— ezta gordeteko egiña, esku-aldatuz ibilteko baiño".

Arma edo iskillu bako gudularia, bizia arriskuan egunero erabili arrèn, guduzelai maitera, itsaso urdin zabalera, edonoiz-edonoiz baretsu, nasai, nare ta lerdan joan oi dan gizasemea.

Eztaukanean isil samar, daukanean edonori emoteko gertu...

Arrantzale biotzaren ederra!

Baiñan isil gaitezcan. Itxaropentsu izaten, gu baiño ukondo bat gorago dagolako euskal-arrantzalea":

ERKIAGA E.



EMAKUMEAREN TZAKO

Umetxoaren janaria

—Jakin dozu, Zezili?

—Zer jakin edo, Klaudi?

—Kataliñanekoa ba. Orain be ume barri bat izan ei dabe.

—Ezta izango!

—Bai, Zezili. Mutiltxu politagorik ez ei dau oraindiño Bizkaiak ikusi!...

* * *

Zorionak bada, Kataliñ. Zein gauza ederra ama izatea! Aingerutxu bat lurrerako, eta arima barri bat zerurako. Zorionak!

Baña zure Antontxu ori oraindiño txikia dozu. Ez dozu ikusten? Oso txikia. Eta asi egin bear.

Zein ete dozu ba zure umetxoaren janaririk onena?

* * *

Enaz ni diñautsudana. Medikiak eurek esango deusue ao batez: "Aberientzako euren amena danez, umearentzako be bere amaren esnea da alimenturik apartekoena".

Kimball medikuaren berbak dozuz: "Gerra denporan Afrikan erri asko aurkitu nebazan gaixoz eta gosez il-zorian. Negargarria zan ainbeste ama euren semetxoakaz alan ikustea. Baña amak, gosez ta gaxorik egozan arren, umetxoak lodi ta sendo aurkitu nebazan. Ama areen esneak egindako miraria zan a, ziur".

Izan be, amaren esneak guztiz ona izan bear dau umearentzako.

Chicago'negiñiko prueba da. Ogei mi-

lle ume examiñeu dituez. Eta konkluziño au atara: amaren bularragaz asiriko umeak, askoz be infeziño eta alerjia gitxiago izan dituez.

Onen arrazoa? Auxe dozu bat: amaren odolak infeziñoa kontrako antikuerpoak-edo daukoz, eta esnearen bitartez emoten deutzoz umeari defenza orreik.

Kimball medikuak diñoanez, amaren bularrean azteak, aurtzaro guztirako egiten deutzoz nesede aundiak umeari. Urte askotan ikusiak gogoan eukita, auxe atara izan dau garbian mediku onek: biberioiegaz azitako umiek osatutera, urteko lau-bost bider joan bear izan dauala; eta amaren bularragaz azitakoak osatutera, barriz, urte birik baten bakarrik. Ez ete dago alde aundia?

Ia ba, Kataliñ, eta ama zarien andratxuok: azi egizuez umeak zeuen bularragaz.

Ama benetakoagoak izango zarie zeuek. Eta Antontxu-ta, barriz, kolore gorriago eta osasuntsuagoak.

Zuetza

Aurtemin artu neban erdal errevisa batek irudi polit bat ekarren. Bertan agertzen zan emakume gazte bat eleiz-kanpantorretik kalera begira, eta beyan idazkun auxe: Emendik goitik begiratu eztero ze txatxarrak diran gizonak!

Norbaitek eskuz auxe geitu eutsan: Eta beetik bere bai, ene alabatxua. Ikasiko don oindiño.

Belu



V A L E N T I N

B E R R I O - O T X O A

D O A T S U A R E N

K A R T A K

IV

Neure amatxo maitia:

Artu dot berorren kartia desiatua; baiña bildur bat emon deust, eta da, asko ezpada be, pizka bat asarre egon biar dabela nigaz.

Egiya da, San Luis Gonzagak, jesuita izan baiño lenago, gurasuai parte emon cutsela; baiña egiya-bere da San Luis Beltranek etxetik iges egiebala, gurasuai ezer esan barik; eta gurü Santo Tomas andiua preso euki ebela dempora askuan bere etxe-kuak, mişeriya askoren erdiyan, Fraille sartu zalako; baiña azkenian beriaz urteñ eban, zergaitik Jaungoikuak destinata eukan gure erreligiñuari honra andiua emoteko.

Alde onetatik, ama, pleitua galdu dan. Esango neutsan nik Fraille izan gura nebala, ona etorri baiño len, esperantza pizka bat euki banecu itxiko eustela; eta agur egitera etorriko nintzan, bildur ezpanintz, biotzik ez nebala eukiko, berorren negarrak ikusita, Fraille izateko.

Baiña Logroñun zelau ez neukan neure buru ariña baiño, orregaitik arin ibilli nintzan. Au egin baneban-bere, profesa allegau artian ezin nei ziertu esan Fraille izango naizala. Ezagutuko banecu Jaungoikuaren vorondatia au ezatala, ez neuke izan gura.

Izan dedilla izango dana; gauza bat importa deusku mundu onetan: ondo bizi gaitiala egun laburretan; orrela ikusi daigun zeru aituetan, eternidade akabu bagekuctan.

Amatxo, ez ikaratu trabajuak gaitik. Pesetatxo bat irabaztiagaitik eztabiz gizonak gau eta egun itxasuan eta leorrian, izardiya bekokiyan da? Zer egin biar eztoyu bada, zerua irabaztiagaitik? Mariya Virginiya arpegiz arpegi ikustiagaitik?

Ezteiyela iñok etxian egunik pasau erro-sariyua errezaun barik; eta ai dabela, mezia-bere goizian entzun, bada onetan emoten dan demporia ezta galdua. Jaungoikuak geixo bat bialtzen badau, nai eta nai ez, galdu biar dira astiak eta illak, eta jan-bere bai osasunian irabazitako kuartuak.

Alkar ondo artu beye, batak bestiar bere faltak sufrituagaz, eta batez-bere geixoko demporetan lagundu beiyue alkarri amorio andiyagaz, iñolako moduz arpegi iñunik ipiñi barik; bada oian daguanak, lanik asko dauka bere geixuagaz.

Urrengo artian.

Gorantziyak etxequai eta osaba Frailiari.

Valentiñek